

**Zubietako Herri Batzarra
ere hautatu behar da**

**Larunbatean hasiko da
'Sagastiak loretan' zikloa**

**Hotzikara taldeari
elkarrizketa**

noaua



**Larunbat honetan,
III. Dantza Eguna**



TXAPELDUN TABERNA

ALOKAIRUAN edo SALGAI
TEL **676 97 60 05**



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA EDO ERREZIBOA EDO HORRELA KORIK EZ DUGU BEHAR, ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Kaxkoko bizikleta bideen sareko zati berri bat erabilgarri

Udarregi Ikastola ingurutik Mikel Laboa plaza ondoko errotondaraino doan bide zatia da Udalak egokitu berri duena. Bizikleta gainean dabiltzanek bakarrik erabili ahalko dute. Ikastolatik jaisten den bide berria, Kiroldegi atari paretik igaro, errepidea gurutzatu eta anbulatorio ondoko aparkalekutik behera dator. Bide berriak, Gaztañaga pareko aparkalekuaren zentzua aldatzea ekarri du. Autoek orain ilaran aparkatu beharko dute, eta kontuz ibili, lurrean margotuak dauden marrek argi adierazi bezala, ondotik pasako baita bizikleta bide berria.

Bizikleta bide zati hau momentuz, Mikel Laboa plaza ondoko errotondaraino heltzen da. Errotondaren bueltan, lurreko eremu bat berdez margotua dagoela ikusiko duzue, eta ondoan, bizikletaren irudia duen seinale bat. Aurrerantzean, autoek ezingo dute eremu berde hau zapaldu. Gune honetatik kanpoko bide zatitik ibili beharko dute. Eta kontuz, ibilgailuek bizikleta erabiltzaileekin partekatu beharko baitute bide zati hau. Bizikleta erabiltzailerik baldin bada errotondan, lehentasuna bizikleta gainean do-



Bizikleta erabiltzailerik bada biribilgunean, lehentasuna bizikleta gainean doanak izango du.

nak izango du, eta honenbestez autoek atzetik segi beharko dute.

Udarregi Ikastolatik Mikel Laboa plaza ingururaino jaisten den bizikleta bidea erabilgarri

da dagoeneko. Baina Udalak, bizikletaren erabilerara sustatzeko landua duen egitasmoa zabalagoa da. Bizikleta bideen sarea osatzen ari da pixkanaka.

Laburrean

1971n jaiotakoen bazkaria Iruin sagardotegian

Aurten berriro elkartuko dira bazkari bat egiteko. "Maiatzaren 9an larunbatean batuko gara eta Iruin sagardotegian izango da bazkaria. Izena emateko email bat bidali helbide honetara, maiatzaren 7a baino lehen: 1971koak@gmail.com

Iruzur eta lapurreten inguruko hitzaldia

Adinekoek sufritu behar izaten dituzten iruzur eta lapurreten inguruko argibideak emateko hitzaldia antolatu du Gure Pakea Elkarteak. Ostiral honetan, apirilaren 24an, 17:00etan Artzabalgo ekitaldi aretoan. Udaltzaingoko eta Ertzaintzako ordezkariak arituko dira hizlari lanetan.

Jaietako diseinu lanak, maiatzaren 12rako

Lehiaketako txapeldunak, 500 euroko saria jasoko du. Diseinu lana sortzen hasteko lehen pausoa Potxoenera gerturatzea izango da.

Egitarauko testua eta oinarriak bertan jaso behar dira. Bestela, eskatu emailez, kultura@usurbil.eus helbidera idatzita.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arnanalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Balantzea

Martxoaren 13an bete ziren bi urte Jorge Bergoglio kardinala Aita santu izendatu zutela. Denbora labur honetan sekulako aldaketa eman dio Eliza erakunde zahar, goitik behera etorria eta gaizki ikusari. Mirarietan sinesteko moduan gaude: hain zuzen ere, mendeetan zehar irauan duen instituzio inperialista hura herriaren zerbitzari bihurtzeko oinarriak jarri ditu. Sinesdunak eta sinesgabeak bat datoz: Aita Santu hau ezberdina da, gertukoa eta sinesgarria. "El coletas"ek ere (Pablo Iglesias) zoriundu egin zuen Europarlamentuan egin zuen hitzaldiaren ondoren. Zertan datza, beraz, Frantziskok eragindako "mirakuluak"? Bi puntu hauetan laburbilduko nuke:

1- Hitzak: ez dut uste lider erlijiosoek salatu dutenik sistema ekonomiko kapitalista horren hitz gordin, garbi eta ulerkerrekin, beronek dakartzan ondorio negargarriak azpimarratuz, hots, paterak, pobrezia, Mediterraneo hilobi erraldoi bihurtzea, pertsonaren eskubide oinarritzkoen mespretxua, langabezia eta abar... Ez

du makurrik mingainean.

Sexua beti izan da gutxi gehiago tabu eta obsesio elizgizonen artean; Frantziskok ez du beldurrik sexuaren gainean hitz egiteko naturaltasun osoz. Elizak ez du izan behar aduana, ostatu eta aterpe baizik. Edonork aurkitu behar du bertan harrera gozoa; ama gisa jokatu behar luke, besoak beti zabalik. Eliza honek klerikalizatu egia izaten jarraitzen du eta laikoak askotan bigarren mailakotzat hartzen dira. Bergogliorentzat eliza denok gara eta ez gotzainak, fraideak, mojak eta apaizak bakarrik. Bi urte daramatzagu entzun gabe gaurko mundua hau "erlatibista, hedonista eta sinesgabea dela". Mezu baikorra dario eta esperantzaren mezulari izateko eskatzen digu.

2- Egintzak: zorionez, bere mezua ederra izan bada, esanguratsukoak direla esango nuke bere jarrera, eginak, emandako pauso ausartak... Adibide bat edo beste: Espainiako transexual bati eman zion tratua. Diego Nería Lejarraga deitzen da. Kristau konprometitua da, baina sexuaz aldatu zenean, denek baztertu egin zuten, herriko parrokoak barne; "deabru

kumea haiz hi", esaten omen zion. Aita Santuari idatzi zion bere barne drama latz hori adieraziz eta baita erantzun ere Frantziskok. Erromara etortzeko eskatu zion bere bikotearekin eta besarkada bat emanez "zuk baduzu lekurik Elizan" esan zion. Pobreekin ere gertutasunezko keinu dotoreak gauzatu ditu: duela gutxi Vatikanoko museoa ikustera gonbidatu zituen 150, gehi afari goxo bat ondoren. Zein irudi polita, eskale gajo horiek pintura bikain horiei begira. Guztiz txundituta. Kronista batek esan zuen bezala: "eszena horrek Buñuel handiaren "Viridiana" pelikula gogorarazten zidak". Dutzak eta ileapaindegi bat ere jarri dizkie Berniniren pilare sailean. Duela egun batzuk baimena eman zuen 80 urteko eskale bat hilobiratua izan zedin Vatikanoren barruan. Orain arte jauntxoak, politikoak, gotzainak eta artista famatuak bakarrik lurperatu zituzten leku pribilegiatu horretan. Eliza pobrea eta txiroentzat nahi zuela esan zuen Aita Santu izendatu zutenean; orain arte praktikan jarritzen ari da bere asmo bikaina.

Egin duena ederra da, paregabea. Baina, asko gelditzen zaio oraindik hasi duen iraultza guztiz gauzatzeko. Hots: Elizaren demokratizazioa: guk ezagutu dugun estilo absolutista horrekin amaitu behar du lehenbailehen. Legeak egin, epaitu eta betearazten dituzten pertsonak ezberdinak izan behar dute. Oraindiano Aita santuek Jainkoaren ordezkari gisa hartzen zuten euren burua, sistemak hala eskatzen zuen eta. Emakumearen rola serio aztertu beharra dauka. Oraindik ez du ezer egin arlo horretan. Emakumeari buruzko teologia guztiz fosildua dago eta errebaso sakon baten beharrea. Teologo zigortuen errehabilitazioa: ehunka izan ziren punituak aurreko Aita Santuen garaian; horiekin egin zen bidegabekeriak ez du izenik. Zain daude ea norbaitek itzultzen dieten beren izen ona, katedra, jendearen aurrean zuten itzala eta abar. Horrela bakarrik izango da eliza askatasun eta tolerantzia gune.

Aita Santu honekin iritsi da udaberria, Pazkoa. Aleluia! Bejondeizula, Aita Frantzisko! Jarrai, hasi duzun iraultza hori gauzatu arte!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

Ika-Mika

Gure Esku Dago, motorrak berotzen hasteko ordua

Gure Esku Dago dinamika gizartea saretzeko jaio zen, lehen harresiak zeuden tokian zubiak eraiki eta guztion artean gure herriaren etorkizuna ehuntzeko helburuarekin. Iazko ekainaren 8an eskuz-esku lotu genituen Durango eta Iruñea eta ondoren etorri zen Zurriolako mosaiko erraldoia. Aurtengo ekitaldi nagusia Ekainak 21ean burutuko da, herrialde bakoitzeko hiriburuan, guri Donostiara hurbiltzea tokatuko zai-gularik. Azken hilabeteotan herriz herri biltzen ari garen oihal-zatiak elkar josita, hautestontzi erraldoiak eraikiko ditugu, egun guztian zehar festa eta aldarrikapena izango dire-

larik nagusi.

Maiatzak 9: #Ehuntze Eguna Usurbilen.

Ekainak 21eko egun garrantzitsuari begira, Usurbilgo Gure Esku Dagok #Ehuntze Eguna antolatu nahi du herrian, maiatzak 9an, motorrak berotu eta gizakatean guztiok sentitu genuen ilusio hura berpizteko asmoz. Oraindik egitarau osatu bat ez badugu ere, hurbildu nahi duenak izango du entretenimendua; haur eta helduentzako tailerrak, bazkari herrikoia, bertso musikatuak...

#Ehuntze Eguna antolatzeke bilerak irekia prestatu dugu datorren ostiralerako, apirilak 24, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean. Ahal

den gehienon artean antolatu nahi dugu eguna, Gure Esku Dago dinamika herritarra baita. Edozein ideia edo proposamen jasoko dugu gustura, ateak zabal-zabalik dituzue guztiok!

Maiatzak 9an egingo den bazkari herrikoirako txartelak laster jarriko ditugu salgai, ohiko tabernetan eta baita Lizardi liburu dendan ere. Helduentzako txartelak 15 eurotan (Oilasko paella, txekor masaila saltsan eta pastela) eta haurrentzako txartelak 5 eurotan (Makarroiak eta izozkia). Bazkariaren ondoren, bertso musikatuarekin gozatzeko aukera izango dugu.

Mahai ibiltaria: informatu, saretu

edo kamiseta berriak erosteko.

#Ehuntze Eguna iritsi bitartean, ekainak 21eko ekintza masiborako informatu edo saretu nahi duenak gure mahai ibiltarira hurbildu besterik ez du. Frontoi inguruan aurkitu gaituzue 19:00etatik aurrera apirilaren 24an eta 25an eta baita maiatzaren 1ean eta 8an ere. Aurtengo kamiseta berriak erosi nahi dituenak ere, bertan izango du aukera! Neurri guztietako kamisetak ditugu, emakume, gizon nahiz haurrentzat.

Herri bat gara. Erabakitzeke Eskubidea dugu. Herritarron garaia da. Gure esku dago!

Gure Esku Dago

Herri Batzarra ere hautatu behar da

Udal eta foru hauteskondeekin batera, datozen lau urteotarako Zubietako Herri Batzar berria osatzeko bozka eguna izango da baita, datorren maiatzaren 24a. Udalerri bakoitzeko hiruna ordezkari hautatuko dituzte zubietarrek.

Zer hautatzen da?

Zubietako Auzo Batzarreko 6 kide hautatuko dira: hiru donostiarrak eta beste hirurak usur-bildarrak, guztiak Zubietan helbideratuak.

Zeintzuk dira batzarraren funtzioak?

1. Zubietako arazo zehatzei buruzko informazioa luzatzea Donostiako eta Usurbilgo Udalei.
2. Udal Zerbitzuak aholkatzea beraien gain jartzen dituzten gaietan.
3. Donostiako eta Usurbilgo udaletan, bai elkarrekin bai banandurik, aztertuak izango diren proposamen zehatzak egitea.
4. Azterketa eta proiektuei buruz Udalek erabakiko dituzten akordioak beteak izan direla ziurtatzea.
5. Udalek Batzarrari eskuratuko dizkieten fondoak administratzea eta haien kontu zuzena ematea, alegia, Batzarraren eta auzoko zerbitzu publikoaren mantenimendurako eta bere gain jartzen dituzten ekintza eta obra txikiatarako fondoak administratzea.

Ika-Mika

Badator berriz ere Usurbil Cup 15

Datorren ikasturtean, Usurbilen Kilometroak izango dugu. Hori dela eta, Usurbil Futbol Taldeak, salbuespen bezala, Usurbil Cup ekainean egitea erabaki du. Usurbilen Kilometroak egiteak herri guztiaren inplikazio osoa eskatzen du. Usurbil Cup egiteak ere boluntario eta laguntzaile askoren beharra eskatzen du eta data berdinetan egitea gehiegizkoa iruditzen zaigu. Beraz, salbuespen bezala, eta Usurbil Cupek hurrengan sortzen duen zirrara edozein arrazoiren gainetik jarrita, aurten ekainean egitea erabaki dugu.

Izen emate orriak Oiarde Kiroldegian utziko ditugu, apirilaren 24tik maiatzaren 8ra. Talde guztiak



Maiatzaren 24an, Zubietako Herri Batzarra ere aukeratu beharko dute.

6. Donostiako eta Usurbilgo Udalek bere gain jartzen dituzten beste edozein ahalmen.

Zein aurkez daiteke?

Edozein hautesle izan daiteke hautagai, zein bere aldean. Hautagai izateko beren nahia idatziz jakinarazi behar diote dagokion Udalari, eta horretarako apirilaren 28tik maiatzaren 5era arteko epea izango dute.

Nola gauzatuko da bozketa?

Udal bakoitzak botu-txartel bakarra argitaratuko du. Botu-txartelak aldarrikatutako hautagai guztien zerrenda jasoko du eta hautesleak nahiago dituen bi hautagaiak X batez nabarmenduko ditu. Hautesleek gehien aukeratutako hiru hautagaiak izango dira batzarkide.

Noiz eta non izango da bozketa?

Bozketa maiatzaren 24an izango da, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 20:00etara, Alamandegian.

Haur Eskolako matrikulazioa, zabalik

0-3 urte arteko hezkuntza eskaintzan izen emateko epe zabalik dago apirilaren 30era arte. Deialdia, 2013-2015 urte artean jaiotako haurrei zuzendua dago. Haur Eskolako ordutegi honen baitan matrikulatu beharko da; 07:30-16:30 artean. Halere aurrez hitzordua eskatu: 943 374 061. Goizez deitu, 09:00-12:00 artean. Haur Eskolatik ohartarazi dutenez, "epe zehatzaren emana nahi duten familiei, ezingo zaie plaza eta ordutegia bermatu".

Aginagan, zientzia egiten

Hiru hilabetez, gai baten inguruko proiektu bat garatzen dute Aginagako Herri Eskolan. Zientziaren ingurukoa izan da 2015ean landu duten lehena. Eta elkarrekin egin dute ikasleek, gurasoek eta irakasleek: "Ura, airea, soinua eta argiaren inguruan esperimenduak egin ditugu. Ikasleak gai honetan trebatu ondoren, ohitura dugun bezala, familiekin batera bukaera eman genion proiektuari".



Igande honetan, EH Bilduren hautagai zerrendaren aurkezpena

Igande honetan, apirilak 26, 12:30ean Dema plazan. Eguraldi txarra egingo balu, frontoian. "Deialdi honetara herritar guztiak zaudete deituak, izan ere herritarrek izango baitzarete protagonistak. Ekimen berezia, ikusgarria, koloretsua, alaia... izango da, formatu berri batean. Animatu zaitzete!", Usurbilgo EHBildutik luzatu duten gonbita.

■ Apirilak 26 igandea.

■ 12:30ean, Dema plazan.

Usurbil Futbol Taldea

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

USURBIL AUTOAK

•TAILERRA •KARROZERIA •KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Joseba Larratxe: "Lotzen gattunk bideoklipa, herriaren erakusgarri izan dadin saiatu gara"

A bestiaz gain bideoklipa ere badu #Kilometroak15 ekimenak. Aldizkari hau esku artean duzueneko zuetako batek baino gehiagok ikusia eta entzuna izango du. Asteazken honetan aurkeztuko baitute Sutegin. Herritar talde bat gogotik ahalegindu eta aritu da lantzen ikus-entzunezkoa. Usurbilgo erakusleioa izan nahi du, "Lotzen GaTTunk" abestia aurrerantzean izango duen bideoklipak.



Bideokliparen oinarria da haria. Joseba Larratxek eskuartean duena.

Egileoi, zer moduzkoa iruditu zaizue hilabeteotan landu duen bideokliparen emaitza?

Joseba Larratxe: Esango nuke denok oso gustora geratu gara emaitzarekin. Ikus-entzunezkoen alorrean lanean dabiltzan profesionalek parte hartu dutela nabaria da, baina ez da ahaztu behar asteburu eta tarte libreetan egindako lan bat izan dela. Askotan gertatzen da grabatzen ari zaren bitartean burutan emaitza jakin bat izatea baina amaieran, irudiak editatu eta muntatzerakoan, hasierako ideia hori gauzatzeko nahikoa material ez izatea. Bideoklip honekin ez da hori gertatu. Lehenengo ikusialdian gutariko batzuk emozionatu egin dira!

Bideoklipak istorio propioa du. Zer islatu nahi zenuten?

Bideoklipa Usurbilen aurkezpena izan dadin saiatu gara. Horregatik, herri honekin lotura estua duen txalapartarekin ireki dugu bideoa. Txalapartariak basoko izpirituei dei egiten diete eta hauek buruhan-

di-irratxo modura agertzen dira. Kilometroak ikastolen festa direnez, garbi genuen protagonistak haurrak izan behar zutela. Pixkanaka, irratxo hauek menditik herrira jaisten dira, bidean topatzen dituzten hainbat lanbidetako langileak ahotik ateratako sokaz bilduz. Noski, soka honek gure hizkuntzaren metafora izan nahi du, euskarak lotzen gaituela irudikatzen. Iratxoak herriko plazara iristean, langile guztiak lotzen dituzten sokak elkartu eta denak batera lanean jartzen dituzte. Euskararekin denok batera (h)ari gattunk.

Herritik herriarentzat egina da goela argi ikusten da. Auzolanean aritzeak zer nolako ahalegina eskatu dizue?

Ahalegin handiena bideoa ondo gertatzeko behar zen denbora eskaintzea izan da. Azkenean, sortzaile talde kozkorra bildu gara lan honetarako. Bilera asko egin behar izan ditugu bideoaren nondik norakoak zehazteko: aktore mordoak, lokalizazioak, sokak, buruhandiak eta bakoitzaren ordutegiak antolatzea izan da seguruenik lan zailena. Gainera,

Euskal Herriko eguraldi aldrebesak jarri dizkigun trabak gainditu behar izan ditugu etengabe. Komunikazio lan-taldeko produkzio lanari esker, sortzaileok gauza horietaz guztietaz ahaztu eta bakoitza bere lanean zentratzea lortu dugu.

Baina auzolanean egindako bideoa izateak ez du esan nahi medio eskasekin jardun dugunik. Irudi kalitate hobereana lortzeko azken belaunaldiko kamerak, argiztapena eta baita aireko irudiak grabatzeko dronea ere izan ditugu!

Nola lotu duzue bideoklipa abestira lotzea? Bideoklipak ze ekarpen egingo dio abestiari?

Jakobaren letra ederra eta iradokitzailea da. Interpretazio asko izan ditzakela iruditzen zait. Gure lana, letra horren interpretazio konkretu bat egitea izan da. Irudi-metafora batean laburbiltzea. Soka, hain zuzen. Horretaz gain, nere ustez abestia ez da lehenengo entzunaldian barneratzen den horietakoa. Denbora behar du. Espero dugu bideoklipak barneratze hau azkartzen laguntzea.

Bideoaren aurkezpena

- Eguna: apirilak 24 asteazkena.
- 19:00etan Sutegin.

Jai parekideen alde

Aurreko astean taldetxo osatu zen Potxoenean, jai parekideak sustatzeko, #Kilometroak15 ekimenak, Matrakak Taldeak eta Udalak antolatutako lehen formazio saioan. Bigarrena, maiatzaren 6an 18:00etan Potxoenean.



Aurreko asteko bilerak segida izango du maiatzaren 6an.

Slaloma Kiroldegian

Ostegun goizeko 10:00etatik 12:30etara kirol egokituko slaloma Oiarde Kiroldegian. Udarregi Ikastolako haurrentzako sentsibilizazio ekimena.

Tonbolarako materiala

Sagardo Egunean, Aritzetako kantoian egongo da #Kilometroak15 ekimenaren aldeko tonbola. Materiala uzteko deia luzatu nahi dute: "Herritarren partetik edonolako opariak jasotzeko prest gaude; pastelak, eskulanak edo norberari buruzko opariak araberak moldatu behar direnez, "tonbola baino 15 egun aurretik gurekin harremanetan jarri: 943361216 (ikastolako idazkaritza) edo 633155879 (Ana).

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Herria dantzan jarriko dute larunbatean

1- Nondik datorkizu dantzarako/antzerkirako zaletasuna?

2- Taldean aritzeak zer eman dizu?

3- Nola biziko duzu III. Dantza Eguna?



Axier Otegi,

Marta Agirre

1-Axier: Txikitatik. dantza taldean ibili nintzen 18 bat urtera arte. Azken urteak Goizaldi dantza taldean egin nituen eta gero dantza utzi nuen. Talde honi esker berreskuratu dut dantza zaletasuna.

Marta: gustatu betidanik, baina inoiz ez naiz ibili dantza taldean. Duela 3 urte hasi nintzen. Oso gustura nabil, jarraitzeko asmotan. 2-Marta: Oso giro polita sortu da. Dantza Eguna dela eta, emozioak partekatu ditugu, urduritasuna... Taldeko lana izan da.

Axier: Euskal dantzak ikasi eta zaletasuna lantzeaz gain, beste dantza modalitate ezberdinak probatu eta ikasteko aukera eman dit. Dantza taldeko giroa oso polita izaten da, talde bat ikusten duzu lanean.

3-Marta: Eguna heltzeko pozik, gogotsu, eta urduri.

Axier: Antolakuntza taldeko kide berriei esker, aurreko edizioetako lana arindu digute Eliri eta bioi. Aurreko edizioetan dantza eginez parte hartzen genuen eta aurten jada kanpotik ikusiko dugu ekitaldia.



Lourdes Ostolaza

1-Familiatik. Txiki-txikitatik amak handitan zer izan nahi nuen galdetzen zidanean, dantza egin nahi nuela erantzuten nion. Aisialdia zela hori eta albo batera utzi nuen. Gustura nabil orain dantzan. Bi urte daramatzat hemen, Lasarten Muxikotan beste hiru egin nituen.

2-Bizipoza ematen dit. Eguna tristea badut, dantza egitera joan eta beste umore batekin ateratzen naiz. la lortzen dugun denon gustuko zerbait egitea, jende gehiago apunta dadin.

3-Urduritasunez. Ni ez naiz oholtza gainean ibiltzeko pertsona, baina saiatuko gara. Plazako erromeria giroa dut gustuko.



Ainara Ullate

1-Dantzarako, betidanik. Antzerki-zaletasuna behin jaietarako antolatuta zen antzezanetik. Jende piloak parte hartu genuen. Orduetik talde txiki bat atera zen, urte batzuetan aritu ginen. Gero desegin zen. Aurten berriz hasi naiz, Muxurbil antzerki taldean.

2-Egunerokotasunetik ihes egiteko aukera. Barre asko egiten dugu, saltsa hau gustuko dugun lagun taldea osatu dugu. Entseguetan ikasi eta gozaten dugu.

3- Aurten ezberdin biziko dugu. Dantza Taldekoek ikuskizunean parte hartzea proposatu ziguten. Dantza ikuskizuna bere testuinguruan kokatu dugu.



M. Eugenia Aizpuru

1-Euskal dantzak gustukoak izan ditut betidanik. Herrian dantza taldea izanda, probatzeko lagunekin hasi naiz aurten. Oso gustura gabiltza, segitzeko asmotan.

2-Dantza eta pauso berriak, dantzen inguruko historia ikasteko aukera. Barre asko egiten dugu, harreman eta giro oso ona dago taldean. Lehen agurtu baino egiten ez ginen herritarrekin harremantzeko aukera eman dit.

3-Eguerdian bazkaria izango dugu. Eguna gaueko ikuskizunera arte luzatuko dugu. Ikuskizunaz oso inpresio oso ona dut. Antolatzaileek zer lan ona egiten duten.

Apirilak 25, III. Dantza Eguna

Erakustaldia

17:30 frontoian.

-Urdirarabeko dantzariak.

-Tximeleta soinketa erritmikoko taldea: Funky, Hip-Hop.

-Warda Mallalen taldea: Polinesia, Afrikako tribu eta funky fusioa.

-Usurbilgo Zumba Taldea.

-Lasarteko Kukuka antzerki eta

dantza taldea: dantza garaikidea eta euskal dantza sorkuntza.

-Usurbilgo Dantza Taldea: Euskal dantzak.

Kantu-dantza jira

19:00 Kantu-Dantza Jira, frontoitik abiatuta.

'Dantzaroa' ikuskizuna frontoian

22:00 "Dantzaroa" ikuskizuna:

"Adin guztietako 60 dantzari baino gehiago taula gainean ikusteko aukera".

Antolatzailea: Usurbilgo Dantza Taldea.

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI
24 h

ORAIN 8 PLAZA!

677 37 34 66 } Joxe
943 36 21 78 } Etxabe

Larunbatean hasiko da 'Sagastiak Loretan'

kastaroak, ibilaldiak, egitasmo aurkezpenak edota usurbildarrentzat maitatuena den urteko jai eguna, XXXIV. Sagardo Eguneko ospakizunak dakartza, Usurbilgo III. Sagastiak Loretan, sagarrondoren loraldiaren gorazarre ekimenak. Ekitaldi eskaintza zabala, larunbat honetan hasi eta ekainaren 13ra bitarte:



Jakoba Errekondok gidatuko du larunbat honetako ibilaldia. Abiapuntua, Alkartasuna kooperatiba. Ordua: 10:15.

Apirilak 25, larunbata

10:15 Sagastien paisaian barrena ibilaldia Jakoba Errekondo paisajistarekin, Alkartasuna, Usurbilgo Baserriarren Kooperatibatik abiatuta.

Maiatzak 9, larunbata

09:00-13:00 "Egutegi Biodinamikoa eta Ilargiak nekazaritzan duen eragina" ikastaro teorikoa Potxoenean. Noiz erein, landatu, ongarritu eta kimatu? Uzta hobetzeko kosmosaren eragina baliatu. Xabier Akizuren eskutik. Prezioa: 5 euro, Alkartasunako bazkideek doainik.

Maiatzak 14, osteguna

11:30 Usurbilgo sagardoaren ibilbide turistikoaren aurkezpen prentsaurrekoa Potxoenean.

Maiatzak 15, ostirala

San Ixidro Eguna:

10:30 Meza Salbatore Elizan. Ondoren, hamaiketakoa eta herri kirolak frontoian.

14:00 Bertso bazkaria Artzabalen. Txartelak salgai maiatzaren 12ra arte, 25 eurotan, Artzabalen eta Alkartasuna Kooperatiban.

18:30 Kalejira herriko erraldoi konpartsaekin.

Maiatzak 17, igandea

XXXIV. Sagardo Eguna.

Maiatzak 23, larunbata

Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: gaitzen eta izurri-

teen jarraipena. Aitor Etxeandiaren eskutik.

19:00 Bertsoakata egitasmoaren aurkezpena. Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sagardoa dastatzen ikastea, Guillermo Casañas enologoaren laguntzarekin. Lekua, zehazteke.

Maiatzak 30, larunbata

Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Ongarriketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

Ekainak 13, larunbata

Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Udako kimaketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

Ugarte etxe okupatuaren aldeko elkartasun gaua

Ostiral honetan, apirilaren 24an, Zarauzko Putzuzulo Gaztetxean. Bertan ateratako dirua, "Ugarte etxe okupatuaren epaiketa laguntzeko izango da".

Egitaraua:

- 20:30 Afari beganoa.
- Ondoren, kontzertuak: Metra-lleta eta Debon taldeak.



Tolosan izandakoa bezalako eraso sexistek erantzunik gabe ezin dutela geratu aldarrikatu zuten Matrakak Usurbilgo Talde Feministak deituta, apirilaren

14an Mikel Laboa plazan egin zen elkarretaratzean. Mobilizazio honekin azken eraso sexista salatu eta halako eraso gehiagorik ez izatea eskatu zuten.

Igande honetan, Sagardoaren Lurraldean ezagutzeko aukera

Sagardoaren lur eremua oinez ezagutzeko aukera aparta, apirilaren 26an. Ibilaldia, Astigarratik Usurbila eta udalerrir honetan, erakusketa eta bazkaria sagardotegian:

- 08:00 Ibilaldia: Astigarraga-Hernani-Usurbil. Geldialdiak:
- 08:00 Astigarragako Sagardoetxea.
- 08:30 Hernaniko udalaren aurrealdea.
- 10:00 Zubietako hipodromoko zubia.
- 12:00 Usurbilgo Udalaren aurrealdea.
- 11:00-14:00 Erakusketa Potxoenean: "Sagardogintza gure baserrietan".
- Ondoren, bazkaria sagardotegian. Izen ematea: 943550575 info@sagardoarenlurralde.com
- Antolatzaileak: Sagardoaren Lurralde, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalak. Laguntzaileak: Mendiriz Mendi, Andatza M.K.T.

Irakurketa-topaketa

Ostiral honetan, apirilak 24, euskarazko irakurketa-topaketa berria antolatu dute, 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Mikel Tabernaren "Alkasoroko benta" liburua izango dute mintzagai, Pako Aristik gidatuko duen saioan. Eleberrri honen aleak eskuragarri liburutegian.

Haur sexualitateari buruzko hitzaldia

Apirilaren 23an, 19:00etan, Bi-hurri haur ludotekak antolatuta. Gurasoei zuzenduriko saioa, ludotekan bertan.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

OGI BERRI
ARTISAU OKINAK
egunero 06:00tik 21:00ra
(asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

G Auto Guria s.l

BERRIZ ZUEKIN!

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

© 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Poligonoa USURBIL

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio

BAI

Komertzioetako plastikozko poltsa

Kafe kapsulak hustu

Albal papera

Aerosolak

Erabili-hustutzeko lorontziak

Plastikozko botilak, letak eta tetrabrikak

Marrubien egurrezko kaxa txikiak

EZ

Medikamentu kondarrak

Ontziak likidoarekin (hustu eta tolestu)

Tonerrak

Lorontzi finko gogorak

Plastikozko eskularrusk

Jostailuek

EAJ-PNVk bere hautagaitza aurkeztu du

“PERTSONA KONPROMETTUAK GARA ETA ILUSIOZ GAUDE”, JOSUNE URKOLA ZERRENDABURUAK ADIERAZI DUENEZ

Usurbilgo Euzko Alderdi Jeltzaleak Josune Urkola buru izango duen hautagaitza aurkeztu du, herriari “haize berria eta aniztasuna” ekarriko dion taldea. Alkatetzarako hautagaiak aurreratu du zerrenda berria osatu dutela jeltzaleek, adin eta lan ibilbide ezberdinetako gizon-emakumeak batzen dituen, eta ziurtatu du guztiak egiten dutela helburu batean: “Usurbilek norabide aldaketa behar duela”. Izan ere, Udala ezker abertzalearen eskutian dago duela ia hiru hamarkada, eta EAJ-PNVk igorri digun prentsa-oharrean dioenez, Usurbilek “haize berria eta aniztasuna behar ditu”.

Urkolaren hautagaitzako kideentzat lehentasunezkoa da Usurbili bultzada bat ematea, “herria ‘geldituta’ baitago Bilduko Udala Gobernuaren gestio kaxkarraren-



Usurbilgo alderdi jeltzaleak Udala Hauteskundeetara aurkeztuko duen hautagaitza.

“EAJ-PNV herriari behar duen indarra emateko prest dagoela berretsi du Josune Urkolak”

gatik”. Urkolak salatu duenez, “Udala Gobernuak ez du apenas proiekturik abiatu, eta berretarrentzat bakarrik gobernatu du, ezker abertzalearen interesekin bat egiten ez duten

proiektu onuragarri guztiak baztertu ditu”. Eskualdeko garapen agentzia eta hondakinen kudeaketa garestia adibide gisa jarri ditu.

Ilusioz beterik gaude

Urkolak berretsi du EAJ-PNV herriari behar duen indarra emateko prest dagoela, eta, horretarako, talderik aproposena osatu dutela. “Gure zerrendako gizon-emaku-

meak pertsona konprometitua gara eta ilusioz beterik gaude”, baieztatu du, guztiak “lan munduan eta kudeaketan eskarmentu handia daukatela” eransteko. Urkolaren ustetan, Usurbilek behar duen taldea da EAJ-PNVrena, eta jakinarazi du jeltzaleek ez ezik, pertsona independenteek ere bat egin dutela zerrendarekin, “aniztasuna eta ikuspuntu irekia erantsiko dioten gizon-emakumeak”.

Hautagaitza, osorik

Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako, hauxe da EAJK osatu duen hautagaitza Usurbilen: Josune Urkola Larrarte (zerrendaburua), Mirari Azurmendi, Andoni Atxega, Carlos Pérez, Joxe Maria Zubiria, Lourdes Jauregiberri, Mari Jose Ibargoiien, Esteban Goenaga, Juan Gorostidi, Juan Maria Zubeldia, Joseba Iñaki Illarramendi, Miren Elixabete Ezenarro, Julian Beraetxe.

gATTUNK

KILOMETROAK 2015 USURBIL

Jose Luis Zumetaren serigrafia lortzeko aukera izango duzu, hain zuzen ere. Artelan hau GATTUNK, KILOMETROAK Usurbilgo aurkezpen ikuskizunean bertan egin zuen artista usurbildarrak Udarreki ikastolako ikasleen laguntzaz, eta Usoa Zumetak serigrafiatu du.





150 serigrafia egin dira, eta bakoitza 150 eurotan jarriko dugu salgai Udarreki ikastolaren alde. Ikastolako idazkaritzan eskuratu daiteke, eta erresebak telefonoz (943 36 12 16), emailaz eta GATTUNK dendan egin daitezke.

Boluntariotzari gorazarre

Gazte elkartea abiatu zutenak, une zailetan egitasmoari berri-rriz heldu eta indartu zutenak, partaide izan dituzten gazteak, begiraleek egindako lan handia, gurasoen eta beste hainbat herritarren ezinbesteko laguntza auzolanaren ikur bilakatu den kanpaldian adibidez... Ziortza 30 urteotan bizirik mantendu duten boluntario guztien lana omendu eta eskertu zuten, larunbatean Sutegin ospatu zen urtemugako ekitaldi berezian.



Ziortzaren 30. urteurreneko omenaldiaren ondoren, 100 lagun batu ziren Udarregi ikastolako jantokian.

Ziortzako gaurko eta atzoko be-
launaldietako kideak bildu zituzten.
Haitako bat baino gehiagok bere
burua ikusi ahal zuen, Ziortzaren
hiru hamarkadotako ibilbideari loturiko argazki proiektioan. Herri erdia baino gehiago izango da eta, Ziortzarekin loturaren bat izan duena. Urteotan hainbat herritarren hezkuntza eta aisialdiari ekarpen nabarmena egin dio gazte elkar-
teak.

Erakusketa Sutegin

Udarregi Ikastolako jangelan ospaturiko bazkarian, hainbat oroitzapen berritzeko aukera izan zuten ia 100 lagunek, Sutegiko omenaldiaren ostean. Aurretik, Ziortzaren historiari buruzko erakusketa inauguratu zuten kultur etxean: irudi mordo jarri dute ikusgai; kanpaldikoak, urtean zehar antolatutako saioretakoak, gazteentzako, begiraleentzako... Eta baita

hainbat objekturenak ere. Igandera arte duzue bisitatze aukera:

Apirilak 18-26

17:00-19:00 Erakusketa, Sutegiko aretoan. (apirilaren 25ean, itxita).

Apirilak 26, igandea

10:00 LH 5etik DBH4ra arteko gaztetxo ororentzako jolasak frontoian.
14:00 Bazkaria (norberak berea

ekarri, eta edaria eta postrea Ziortzaren kontura).

15:30 Jolasen jarraipena.

18:00 Dantzaldia Askatasuna plazan.

Kanpaldirako 130 lagun

Marka guztiak hautsita, 130 lagun aurrematrikulatu dira udako kanpaldirako. Izena eman dutenei, gutuna bidaliko zaie eta argibideak emateko guraso bilera deituko dute.

BIZI
BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

eman eta hartu

ARGIA astekaria eta
ALKARTASUNA KOOPERATIBAREN
eskutik,
Jakoba Errekondoren
“BIZI BARATZEA”
liburuaren aurkezpena

Maiatzak 2 larunbata,

Alkartasuna, Usurbilgo
Baserritarren Kooperatiban.
Goizeko 11.30etan

GIPUZKOARROK
garaile!

apirilak 26
igandea
12:30 dema plazan

Usurbilgo EHBilduren
zerrendaren aurkezpen ekitaldia

ehbildusurbil@gmail.com

EHBilduUsurbil



ehbildu

BAZKIDEEN TXOKOA

NOAUA

NOLA BELZTU BEHAN ZURIA
Joxan ARTZEren poemak Bide Ertzean,
Asier Sarasola eta Oier Guillanen eskutik

apirilak 24
ostirala,
22.00etan Sutegin

*Nola belztu behan zuria
ikusteko bi sarrera*

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera ditugu zozketatzeko. Email bat idatzi erredakzioa@noaua.eus
helbidera eta apirilaren 24an ostirala www.noaua.eus orrian bazkide sarituaren izena.

Bazkide esiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Sendoa, Hotzikararen bigarren pausoa

Aurreko astean kaleratu zuten bigarren diskoa. Eta maiatzaren 9an eskainiko dute lehen zuzeneko Usurbilgo Gazte-txean. Elkarrizketa honetan topatuko dituzue lan berriari buruzko xehetasun gehiago.

Erritmo biziak zuen ezaugarri dira. Tempo erdiko pasarteak ere badira honakoan. Estilistikoki oparoagoa al da bigarren lan hau?

Hotzikara. Egia da, erritmo biziak gure parte direla, baina gure ustez garrantzitsuena ez da abiadura, kontudentzia baizik. Horregatik badira kanta agresibo eta azkarrak, baina lepoa astintzeko aipatzen duzun tempo erdiak ere badu bere xarma.

Ez dakigu bigarren diska hau oparoagoa den estilistikoki, baina gure gustuak eta influentziak eraldatzen joan diren heinean sortutako kantuak dira. Lehenengo diskan ere bageneuzkan karga emozionala zuten kantu mantsoak, *Nihil* adibidez, baliteke bigarren honetan estilo honetako kanta gehiago edukitzea.

Erritmo biziak ez ezik, gitarra zorrotzak eta boz indartsua. Horiek ere badira Hotzikararen markak. Sendotu egin dira arrasto horiek bigarren lan honetan, ezta?

Bai, egia esan, aurreko diskako grabaketaren ondoren, zenbait kantutako une batzuetan indarra galtzen genuela iruditu zitzaigun, eta horregatik, diska honetarako ahotsa konstanteago mantentzen saiatu gara. Bestalde, gitarraren soinua nabarmen egin du hobera eta gorputza hartu du.

Garai aldrebes hauen lekuko al dira letrak?

Diskako letrak eguneroko bizitzan ematen diren gertaerek probokaturako gogoetatik datoz orokorrean, beraz, bai. Norbanakoaren burua aztertuz gizaratean zabaltzen ari diren zenbait joeraren inguruko gogoetak dira. Penduluaren kasuan, kantuak berak pendulu baten erritmoan garrantzitsuak eta gaur egun denborarekin dugun obsesioa edota dependentzia bezalako gaiak ukitzen dira.

Bitxikeria bat. Didgeridoo doinu batekin



Hotzikara taldeak bigarren diskoa eman berri du argitarara. Prozesu profesionalagoa izan du lan honek.

HOTZIKARA

Irrati, Karobi eta Zendoia tabernetan dago CDA eskuragai. Eta aurkezpen kontzertua maiatzaren 9an izango da, Usurbilgo gaztetxean

hasten da diskoa. Akaso letrari lotuta dago didgeridoo-aren erabilera?

Bada alde batetik bai. Iban Nikolaiek maixuki sartutako didgeridooak soinu tribalak eta naturarekin lotutako giroak ekartzen dizkigu gogora. Dena den, letrako istorioa Amazonas oihaneko tribu baten inguruan dago, beraz, ez du lotura gehiegi Australiarekin!

Soinuaren hobetzea ere nabarmena da. Garapen kontziente baten emaitza baino, taldearen sendotzearen ondorio izan al da?

Bai eta baita diru gehiago edukitzearen ondorioa! Kar, kar! Arrazoi nagusia horixe izan da, taldearen sendotzea. Bigarren diskarekin gauza dotoreago bat egin nahi genuen, gure buruari talde bezala beste pausu bat eman dugula demostratzeko. Grabaketa prozesu profesionalagoa edo serioago bat eduki du diskak eta honek gure garapenean ere izan du eragina.

Noiz eta non grabatu duzue diskoa?

Tolosako Bonberenean grabatu dugu, Karlos Osinaga "Txap"ekin. Oroitzapenak beti dira onak horrelakoetan. Lan karga handiko egunak dira, intentsitate askokoak eta batzuetan gogorrak, baina azken batean esperientzia berezia da, sortze prozesu luze baten azken txanpa.

Nola eskuratu daiteke diskoa?

Jada kalean da, aurreko ostiraletik! Usurbilen Irrati, Karobi eta Zendoia tabernetan egongo dira eskuragarri eta hortaz gain, Donostia, Lasarte, Beasain eta Zarauzko zenbait tabernetan. Bestalde interneten ere salgai jarri dugu gure bandcamp-ean (hotzikara.bandcamp.com) digi-talki edota fisikoki eskatzeko eta spotify, iTunes eta beste zenbaitetan ere eskuragarri dago jada.



Azal hau darama Hotzikararen diskoak.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA



Aurreko hitzordua: 635 701 374

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Buruntzaldea hobetzeko aukera, gure esku

Foru Aldundiak Partaidetzazko Aurrekontuak martxan jarri ditu, Gipuzkoako 10 eskualdeetan: Urola Erdia, Tolosaldea, Oarsoaldea, Bidasoaldea, Urola kostea, Urola Garaia, Debabarrena, Debagoiena, Goierri eta Beterrin. Eskualde bakoitzean 2.000.000 euro jarriko ditu herritarren esku, parte hartze prozesu baten bitartez epe motzeko eta ertaineko ze proiektutan inbertitu erabaki dezaten. Usurbilen, bilera irekia deitu dute aste honetarako.

Partehartze prozesu honetako lehendabiziko fasean, herritarren proposamenak jasotzea da helburu nagusia, eta horretarako hiru modu daude:

- 1. Etxera iritsi zaizuen esku-orriaren formularioa bete dezakezue.
- 2. www.aurrekontuahobetzen.net webgunearen bidez



Tailerak egiten ari dira eskualdean. Ostegun honetan, Potxoenean.

- 3. Herriz herri egiten ari diren partaidetzazko tailerretara joanda.

Herri tailerra Potxoenean

- Apirilaren 23an osteguna, arratsaldeko 19:00etan.

- Usurbilgo Potxoenean.

Beste bi tailer

Herri bakoitzean era irekian egiten ari diren tailerrez gain, *Mugikortasuna* eta *Ingurumena* gaiak lantzeko, beste bi tailer espezifiko egingo dira Buruntzaldean.

"Zeharkako gaiak direnez bertan beste gaiak landuko dira ere bai. Hots, Mugikortasun tailerrean, Parekidetasuna – Gizarte politika – Oroimen historikoa gaiak jorratuko dira ere bai, eta Ingurumena tailerrean Energia – Kultura – Ekonomia – Turismoa inguruan arituko dira herritarrak zein eragileak", Foru Aldunditik aditzera eman dutenez.

Herritarrek zein eragileek eskualdea nola hobeto erabaki dezaten, tailer hauek antolatuta dituzte. "Gure eskualdea hobetzea dago jokoan, parte hartu".

Mugikortasuna hizpide

- Apirilaren 28an asteartea, 19:00etan Lasarte-Oriako Villa Mirentxun.

Ingurumena hizpide

- Apirilaren 29an asteazkena, 19:00etan Usurbilgo Potxoenean.

Apirileko Tipi-Tapan sarituak



150 euroko erosketa-balea tokatu zaie Amaia Añorga eta Olatz Arregi herritarrei, apirileko Tipi-Tapako zozketan. Haien 6.270 zerbakidun txartela izan da saritua. Bigarren saria, Txirristan bi

lagunentzako afaria, 1.528 zenbakidun txartela zuenari egokitu zaio. Saritua ez da agertu oraindik. Gainerakoek, hurrengo pintxo festara arte itxaron behar: maiatzaren 3an. Kroketa-dun zizka-mizka bereziekin.

Gose greba utzi du Amador Granadosek

Apirilaren 14an Bat Basque Team-eko kideekin batzartu ostean erabaki zuen Amador Granadosek bezperan hasitako gose greba bertan behera uztea. Honela azaldu zuen erabakia web bidez: "Bat Basque Teameko ordezkariak Amador Granadosekin bildu dira eta bakoitzak bere ikuspuntua azaldu eta gaizki ulertuak argitu ondoren, protesta ekintza bertan behera uztea erabaki du kirolariak. Bat Basque Team-ek kirol egokituarekin duen konpromisoa berresten du, entitatea 2008an sortu zenetik orain arte egin izan duen moduan. Bi aldeek gertatu dena berriz ez errepikatzea espero dute".

Eskubaloia Kiroldegian

Apirilak 25, larunbata

09:15 Alebin mutilak:
Langile A-Udarregi 5A
09:15 Alebin mutilak:
Udarregi 5A-Udarregi 5C
10:15 Alebin mutilak:
Udarregi 6C-Udarregi 6B
11:15 Infantil mutilak:
Udarregi Usurbil-Bidasoa Irun
12:45 Kadete neskak:
Usurbil K.E. "A"-Aiala B Zarautz
14:15 Jubenil mutilak:
Usurbil K.E.-Karibe Zaharra
19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil- Uharte (sarrera doan)

Apirilak 26, igandea

09:15 Infantil neskak:
Udarregi A Usurbil-Egia
Kadete neskak:
Usurbil K.E. "C"-Bidasoa Irun (ordua zehazteke).

Gipuzkoako Selektzioa

Apirilak 26, igandea

08:45 Entrenamendua Orioko Kiroldegian. Usurbil K.E.ko kide Estitxu Berasategi Eizagirre eta Ane Irazabal Esnaola deitu dituzte hitzordura.

Futbola Haranen

Apirilak 25, larunbata

09:30 Alebin neskak:
Udarregi 5B-Langile A
10:30 Infantil mutilak:
Usurbil F.T.-Beti Ona C.D.
12:30 Kadete mutilak:
Usurbil F.T.-Orioko F.T.

Apirilak 26, igandea

16:00 Jubenil mutilak:
Usurbil F.T.-Trintxerpe C.D.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

URPI Leihoak
urpileihoak@gmail.com
943 50 80 95 • 688 81 93 33
nagusia 10 (atek) USURBIL

Euskal Ligara igo dira

Kadete eta jubenil neska-mutileen taldeak Euskal Ligan ditugu jada, asteburuko igoera faseak jokatu ostean. Neskek Bilbon, mutilek Oiardo Kiroldegian zuten onena emanda eta ia neurketa guztiak irabazita nagusitu ziren gainera. Zorionak!

Neskek, Euskadiko Txapelketan

Denboraldiko bigarren fasea multzoko sailkapen buruan amaitu ostean, senior nesken txanda orain. Euskadiko Txapelketako fasea jokatu dute asteburu honetan. "Bertan, Euskadiko lehen 4 postuak erabakitzeaz gain, Espainiako Txapelketarako 2 txartel egongo dira jokoan. Txartel horietako bat lortuz gero, Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko sektorea izango lukete beraz", Usurbil K.E.-tik berri eman dutenez.

1. Nazionalean segiko dute

2015-2016 kirol urtean ere, 1. Nazional mailan lehiatuko da Usurbil



Senior neskek Euskadiko Txapelketako fasea jokatu dute asteburu honetan.

Kirol Elkarteko senior mutilen taldea. Eskubaloi taldeen bilgunetik berri eman digutenez, CB Hondarribia taldeak galdu egin zuen igandean jokaturiko neurketa, eta honenbestez, "gure 1. Nazionaleko taldea matematikoki mantendu egingo da beste denboraldi bat gehiagoko maila berean, nahiz eta oraindik 2 jardunaldi jokatzeko egon".

Territorialekoak,

2. Nazionalera bidean

Berri on gehiago. Usurbil K.E.-ren 1. Territorial mailako senior mutilen

taldea, 2. Nazional mailara igotzeko lehian murgildu baitzen asteburuan.

Larunbatean Barakaldoren aurka lehiatu ostean, datozen asteotan aurkari hauekin neurtuko dira usurbildarrak:

-2. jardunaldia, apirilak 26: BM Romo Indupime-Usurbil K.E.

-3. jardunaldia, maiatzak 10: Aloña Mendi K.E.-Usurbil K.E.

-4. jardunaldia, maiatzak 17: Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

-5. jardunaldia, maiatzak 24: CB Sestao-Usurbil K.E.

Jubenilak, mutilak



Jubenilak, neskek



Senior mutilak, Nazional maila



Kadeteak, mutilak



Kadeteak, neskek



Senior mutilak, Territorial maila



Fasea Oiardon jokatu da asteburu honetan

Usurbildarren aurkariak bizkaitarrak izango dira: CB Muskiz (Muskiz), CB Jarrilleras (Portugaleta), Errotabarri (Ermua). Partiden egutegiaren zozketa asteazken honetan egitekoak ziren.

Neurketen ordutegiak:

Apirilak 24, ostirala: 18:30 eta 20:15 Usurbil K.E.ren neurketa.

Apirilak 25, larunbata: 16:00 eta 17:45 Usurbil K.E.ren neurketa.

Apirilak 26, igandea: 11:00 eta 12:45 Usurbil K.E.ren neurketa. 14:00etan sari banaketa.

Eskubaloiko errifa zozketak

Maddi Aburruzari egokitu zaio, Usurbil KE-k antolaturiko errifa zozketako saria.



2 laguntzako afaria tokatu zaio

Saizar sagardotegian, 4.020 zenbakidun errifaren jabeari. Bestalde, 3.890 izan da azken mariskada zozketako zenbaki saritua.

Igande honetan, orientazio proba

Igande honetan, Andatzen. Eki-mena, estreinakoz, Gipuzkoako Orientazio Taldeak antolatu du. "3 ibilbide izango dira. Aldapatsua bezain polita izatea espero dugun proba zuen gustokoa izango delakoan". Informazio gehiago: probak.GOTorientazioa.org

Andatzakoekin, Herri Urratsera

Egun bateko edo bi eguneko ibilbidea osatzeko plana prestatu dute: ■ Ereñozu-Lesaka maiatzaren 9an (6,5 ordu).

■ Lesaka-Senpere maiatzaren 10ean (5,5 ordu).

Berri gehiago laster emango dute: andatzamendizale.info

ETXEBIZITZA

Salgai

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukalde, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetakoa pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682

214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatze 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta errolarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatze pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motora duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat

alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602

828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agiriekin. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketara egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filozofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579



Zorionak Jon! Happy Birthday, apirilak 21ean dagoeneko 10 urte, bi esku osoak!! Muxu handi bat etxekoan partez eta ondo ondo pasa!



Zorionak Haritz! Apirilaren 27an, 8 urte beteko dituzu. Ondo-ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Izaro! Apirilaren 3an, 5 urte bete dituzu. Muxu potolo bat Aginaga ikasle eta irakasleen partez.



Zorionak Ekhi! Guapo!!! Apirilaren 13an, 7 urte bete dituzu. Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat; ama, aita eta familia guztiaren partez.



Zorionak bikote! Muxu potolo bana etxekoan partez eta ondo ondo pasa!



Zorionak Aitor eta Gorka! Apirilaren 18an 4 urte egin dituzue. Muxu asko asko ama eta familia guztiaren partez!!

Heriotzak

Manolo Monroy Castela

72 urterekin hil zen, apirilaren 19an



M. Dolores Bengoetxea Esnal

90 urterekin hil zen, apirilaren 9an



Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketatan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketatan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketatan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erre-

ferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketatan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitza-

ri, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketatan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen

du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen nes-

ka. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

BESTELAKOAK

Bi aukeri 0 - 1 urtekoak, "chicco" markakoak saltzen ditut. Nahiko berriak. Tel. 676 39 89 33.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure masakota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan.688888176.Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa.610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Apirilak 23-maiatzak 03

Osteguna 23 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 24 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 25 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Igandea 26 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Astelehena 27 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekitu egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Agenda apirila

24 ostirala

- **Adinekoak, lapurretak eta iruzurrak.**
Hitzaldia 17:00 Artzabalen.
- **Xanisteban jaien inguruko bilera irekia**
19:00 Urdaigako plazan.
- **Elkarretaratzea, 20:00** Mikel Laboa plaza.

25 larunbata

- **III. Sagastia Loretan: ibilaldia, sagasti loretueta.** 10:15ean, Alkartasunatik.
- **III. Dantza Eguna.** Ikus 7 or.

26 igandea

- **"Sagardoaren Lurralde ezagutzuz":**
ibilaldia, erakusketa, bazkaria... Ikus 8 or.
- **Mendi bizikletako orientazio proba, Andatzen.** Ikus 15. orrialdea.
- **Ziortzak 30 urte.** Ikus 11 or.

"Nola belztu behar zuria" saioarekin hasiko da Jexux Artzeren omenezko zikloa

Joxan Artzeren poemarik berrienak oinarri hartuta poesia eta musika emanaldia sortu dute Bide Ertzean taldeak eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillan eta Asier Sarasola deklamatzailerak. Iaz eskaini zuten lehen aldiz emanaldi hau, Sutegin. Hainbat emanaldi eskaini zituzten ondoren eta orain Elkar argitaletxearen arreta piztu du ikuskizunak. Horregatik itzuliko dira Sutegira. Saioa grabatu eta udazkenean DVD euskarrian argitaratua izan dadin. Sarrerak Lizardin eskura daitezke, 10 eurotan. Eta bestela egunean bertan, Sutegiko leihatilan. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Joxan Artzek "Heriotzaren ataria dugu bizitza" eta "Bizitzaren atea dukegu heriotza" izeneko poesia liburuak kaleratu zituen iaz Elkar argitaletxearen eskutik. Bertako poemak oinarri hartuta poesia eta musika emanaldia sortu dute Bide Ertzean taldeak eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillan eta Asier Sarasola deklamatzailerak: zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogei in-

Elkarretaratzea eta barrikotea

Hileko azken ostiraleko kontzentrazioa baliatuko nahi dute "Xomorro askatzea eta etxeratzeari aldarrikatzeko". Ostiral honetan, 20:00etan, Mikel Laboa plazan.

Ondoren, herriko presoei euskal prentsa igortzeko harpidetza-gastuei aurre egiteko barrikotea antolatu dute Aitzaga elkarteak. Txartelak bertan salgai izango dira 20 eurotan (14 euro ikasle eta langabeentzat).



Ostiral honetako emanaldia grabatu egingo da eta udazkenean plazaratuko da, DVD euskarrian.

guru errezitatuko dituzte.

Liburuek jorratzen dituzten gaietan barrena osatu dute ibilbidea egileek: maitasuna, bizitza-heriotza, ama-aita, itsu-mutu-gorkeria, olerkaria zuria belzteko tenorean...

Sarrerak, Lizardin salgai

Sarrerak 10 eurotan daude salgai. Lizardin eta bestela emanaldi egunean, Sutegiko leihatilan.

Ostiral honetako emanaldia grabatua izango da. Elkarrek DVDn aurkeztu nahi du udazkenean.

Xanistebanak antolatzeko bilera

Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan, Urdaigako plazan. Auzotar guztiak deituak daude hitzordura. Laguntza behar dute Jai Batzordean. Jaietarako ekarpenak eta antolaketan lanetan laguntzeko jendea bildu nahi dute. Bertaratu ezin duenak, ekarpenak egin edo antolakuntza lanetan parte hartzeko helbide honetara idatzi dezala, izen abizen eta telefono zenbakiak utziz: xanistebanak@gmail.com

Datozenak

Zumarte, haur-koruen

IX. tailerrean

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak aste-buru pasa antolatu du. Musika korala lan-tzea du helburu eta Zumartek ere hartuko du parte. Asteburu honetan, Hondarribian.

Santixabeletako

Jai Batzordearen bilera

Datorren astelehenean, apirilak 27, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Udajolasen izena emateko

epea maiatzaren 4an

irekiko da

Aurten, 4-12 urte arteko 200 haur eta gaztetxorentzako lekua egongo da Udajolasen. Izen ematea, maiatzaren 4tik 8ra, NOAUA!ko egoitzan eta ordutegi honetan; goizez, 10:00etatik 12:00etara, eta arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara.

Izen-ematea eta ordainketa, biak batera

Matrikulatzeko sistema aldatu dugu aurten. Adi. Izen ematea eta ordainketa biak batera egin beharko dira, maiatzaren 4tik 8ra. Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko.

NOAUA!ra matrikulazioa egitera zatotenean, izen emate orria datuekin beteta eta ordainketa egin duzuela frogatzen duen ordainagiria ekarri beharko dituzue. Datorren aldikarian, xehetasun guzkiekin izen emateko behar beste argibide.

Pinturas Ion

KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

APIRILEAN



10 eta 20€ko
erosketa
baleak opari!

Sariak, Hurbilago txartelaren ordainagiritan agertuko dira eta Hurbilagoko saltokietan erabili ahal izango dira, 2015ko maiatzaren 31ra arte.





Eusko Leiala

egin aukeraketa!

ASKATASUNA PLAZAKO HAUR-JOLAS BERRIAK aukeratzeko kanpaina

ZEIN DUZUE GUSTUKOENA? PARTE HARTU AUKERAKETAN!

NOLA PARTE HARTU:

- Etxean proiektuak azalduko diuen postal batzuk jasoko dituzu. Gustuko duzun proiektuari dagokion postala moztu eta herrian jarritako postontzietako batean utzi. 7 postontzi jarri dira.
- Familia bakoitzeko boto bat onartuko da. Beraz, postalean, dagokion lekuan, zure izena, abizena eta helbidea jarri. Izendatu gabeko postalik ez da onartuko.
- Ekarpenak egiteko epea: apirilaren 24tik maiatzaren 4ra.



Erabilgarria: 2014/04/24 10:00:00



AUKERA A

2-7 URTEKOENTZAKO GUNEA

- ✓ Eribe forma duen malgukia
- ✓ Taldean kulunkatzeko barraskiloen malgukia
- ✓ Gamelu formako birrista
- ✓ Etxetxoa
- ✓ 2 eserlekuko kulunka
- ✓ Plataformako kulunka
- ✓ Tren forma duen birrista
- ✓ Kautzubuko zorua

8-12 URTEKOENTZAKO GUNEA

- ✓ 2 solairuko 2 dorre dituen jokoia, birrista, birrista-tunela eta orekarako ibilbidea
- ✓ Kautzubuko zorua



AUKERA B

2-7 URTEKOENTZAKO GUNEA

- ✓ 2 eserlekuko kulunka
- ✓ Plataformako kulunka
- ✓ 4 haurrentzat marigorringo formako malgukia
- ✓ Itsasoko zaldi forma duen malgukia
- ✓ 2 birrista dituen dorretxoa
- ✓ Tren forma duen birrista
- ✓ Kautzubuko zorua

8-12 URTEKOENTZAKO GUNEA

- ✓ 2 eserleku dituen kulunka
- ✓ 4 dorre dituen ibilbidea
- ✓ Kautzubuko zorua



AUKERA C

2-7 URTEKOENTZAKO GUNEA

- ✓ Txirrista, igotzeko sarea, igotzeko arrapala eta eskaladera dituen dorrea
- ✓ Kohete forma duen malgukia
- ✓ Moto forma duen malgukia
- ✓ Rotatwin 2 haurrentzat malguki birakaria
- ✓ Plataformako kulunka
- ✓ Kautzubuko zorua

8-12 URTEKOENTZAKO GUNEA

- ✓ Joko konbinatua: plataforma, igotzeko sarea, eskaladako hodia, biratzen duen hodia, pasabidea, txirrista-hodia
- ✓ 2 eserleku dituen birakaria
- ✓ Zintzilikatuta erabiltzeko birakaria
- ✓ Kautzubuko zorua